Bestelako Xedapenak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Zk-4059

323/1999 DEKRETUA, irailaren 7koa, Areeta-Getxoko Asociación Antiguas Alumnas Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María» izeneko elkartea herri onurakotzat deklaratzen duena.

Bazkunei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legeko 22. artikuluan ezartzen denez, euren jarduerekin EAEren interes orokorra sustatzen duten elkarte inskribatuak herri onurakotzat deklaratu daitezke.

Hori aintzat harturik, Areeta-Getxoko Asociación Antiguas Alumnas Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María» izeneko elkarteak herri onurakotzat deklara dezatela eskatu du, uste baitu berak betetzen duen lanak gai egiten duela herri onurako entitate lez deklaratzeko. Izan ere, minusbaliatuen asistentzia eta haiek gizartean eta lan-munduan txertatzea bultzatzen ditu elkarte horrek.

1972an sortu zenez gero, zehazkiago 1978an «Rafaela María» Zentro Okupazionala zabaltzearekin eta zabaldu berri den Enplegurako Zentro Bereziarekin, elkarte horrek minusbaliatuentzako jarduera okupazional eta asistentzial ugari burutu ditu, bai eta haiek gizartean eta lan-munduan txertatzekoak ere.

Hori horrela dela, asistentziaren alorrean betetako lan txalogarriak merezitako itzala ekarri dio elkarteari; eta gainera, zeregin horietan diharduten erakunde publiko eta pribatuen errekonozimendua ere lortu du. Horren emaitza izan da erakunde horien elkarlana eta alor horretan eskumenak dituzten administrazio publikoek finantzatu izana elkarteak sustatutako ekintzak eta egitasmoak.

Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluan erabakitako dekretu bidez egingo zaio herri-onurako deklarazioa. Proposamena, alor horretan eskumenak dituzten sailek egingo dute; eta, aldez aurretik, sailok eta interesaturik dauden enteek eta antolakundeek txostena egingo dute. Agindu hori betez espedientea hasarazi da, eta helburu horretarako eskatutako sail eta erakundeek landutako txostenak eransten zaizkio horri. Txosten horietan, aldeko iritzia ematen dute eskabidea egin duen elkartea herri onurako entitatetzat deklaratzeko.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

N°-4059

DECRETO 323/1999, de 7 de septiembre, por el que se reconoce como de utilidad pública a la Asociación Antiguas Alumnas Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María», de las Arenas-Getxo.

El artículo 22 de la Ley 3/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones, establece que podrán ser reconocidas como de Utilidad Pública las Asociaciones inscritas que contribuyan mediante el desarrollo de sus actividades a la promoción del interés general de Euskadi.

A su amparo, la Asociación Antiguas Alumnas Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María», de Las Arenas-Getxo, ha solicitado la declaración mencionada, por entender que las actividades que realiza en favor de la asistencia e integración socio-laboral del colectivo de minusválidos, la hacen merecedora del reconocimiento como entidad de Utilidad Pública.

Desde su constitución en el año 1972, y más concretamente desde que se puso en marcha el Centro Ocupacional «Rafaela María» en 1978, y más recientemente el Centro Especial de Empleo, esta Asociación ha venido desarrollando una serie de actividades de tipo ocupacional, asistencial y de inserción socio-laboral de minusválidos.

En el desarrollo de esta meritoria labor asistencial, se ha hecho merecedora del prestigio y reconocimiento de las entidades públicas y privadas que actúan en este campo, lo que se ha traducido en una mutua colaboración y en la financiación de una parte importante de sus actividades por parte de las Administraciones Públicas con competencias en esta materia.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 22 de la Ley, la declaración de Utilidad Pública se realizará mediante Decreto acordado en Consejo de Gobierno, a propuesta de los Departamentos que corresponda por razón de la materia, previo informe de los mismos y de los entes y organizaciones interesados. En cumplimiento de dicho mandato, se ha instruido el oportuno expediente, habiéndose incorporado al mismo los informes emitidos por los Departamentos e instituciones requeridos al efecto, en los que manifiestan su parecer favorable a la declaración de la peticionaria como entidad de Utilidad Pública.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, interesaturik dauden enteek eta antolakundeek igorritako txostenak ikusi ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko irailaren 7an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Atal bakarra.– Areeta-Getxoko Asociación Antiguas Alumnas Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María» izeneko elkartea herri onurakotzat deklaratzea; eta hori, bere jarduerekin EAEren interes orokorra sustatzen duelako. AS.R.P.B. 457 zenbakiz dago inskribatuta Elkarteen Erregistro Orokorrean.

Deklarazio horrekin batera doazen eskubideak ere aitortzen zaizkio, hain zuzen ere otsailaren 12ko 3/1988 Legeko 22.2 artikuluan aurreikusitakoak.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko irailaren 7an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, vistos los informes emitidos por los entes y organizaciones interesados, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 7 de septiembre de 1999.

DISPONGO:

Artículo único.– Declarar de Utilidad Pública a la Asociación Antiguas Alumnas Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María», de Las Arenas-Getxo, inscrita con el número AS.R.P.B. 457 en el Registro General de Asociaciones, por considerar que contribuye a la promoción del interés general de Euskadi mediante el desarrollo de sus actividades.

Asimismo, se le reconocen los derechos inherentes a esta declaración previstos en el artículo 22.2 de la Ley 3/1988, de 12 de febrero.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de septiembre de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Zk-4060

AGINDUA, 1999ko irailaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez, Mondragon Unibertsitatean irakaskuntzak ezartzeko baimena ematen da.

Maiatzaren 30eko 4/1997 Legeak, Mondragon Unibertsitatea aitortzen duenak, 2.3 artikuluan honakoa ezartzen du: ikastegi berriak onartzeko, titulu ofizialetako ikasketa berriak ezartzeko eta baita titulu horiek homologatu ahal izateko ere, Unibertsitatearen Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 58. artikuluko betebeharrak eta atal hori garatzen duten arauetakoak bete beharko ditu Unibertsitateak.

Bestalde, apirilaren 12ko 557/1991 Errege Dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-eskolak sortu eta aitortzeari buruzkoak, 16.1 artikuluan honakoa xedatzen du: titulu ofiziala lortzea helburu duten irakaskun-

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Nº-4060

ORDEN de 15 de septiembre de 1999, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza la implantación de enseñanzas en la Universidad «Mondragon Unibertsitatea».

El artículo 2.3 de la Ley 4/1997, de 30 de mayo, de reconocimiento de la Universidad «Mondragon Unibertsitatea», establece que para el reconocimiento de nuevos centros e implantación de nuevas enseñanzas conducentes a títulos oficiales, así como para la homologación de estos títulos, la Universidad deberá cumplir los requisitos a que se refieren el artículo 58 de la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria y las normas que lo desarrollen.

Por su parte, el artículo 16.1 del Real Decreto 557/1991, de 12 de abril, sobre creación y reconocimiento de Universidades y Centros Universitarios, prescribe que la creación o reconocimiento de nuevos Cen-